

HEZIREN BATZORDE IRAUKORRA

PARTAIDEAK:

- o Aloña, Oihane, Miren, Larraitz, Iñigo eta Irati

IAZKO BALORAZIOA:

1. OROKORRA:

Lehenengo urtea izanda, noraeza, ezjakintasuna... bizi izan ditugu. Hasieran jende gehiago bildu ginen; ondoren kopurua jaitsi da. Bileren maiztasuna aldakorra izan. Batzorde iraunkorraren heldutasun falta sumatu da.

Hala ere, ikasturte hasieran proposatutako proiektuak aurrera eraman ditugu. Proiektu bakoitzean, momentuko beharren arabera, eragile edota norbanako ezberdinak bildu, adostu eta garatu dira proiektuak. Orokorrean, ikasturte hasieran proposatutako helburuak bete dira nahiz eta batzuk bukatzeke edo garatzeke egon.

2. PROIEKTUENA:

- LUDOTEKAREN INGURUKO HAUSNARKETA

Haurren “aparkaleku” izateaz haratago, proposamen berri bat aurrera ateratzeko helburuarekin bildu izan dira Udala, ludotekako langile, Guraso Elkarte eta Txatxilipurdiko ordezkariak eta aurtengo ikasturterako proposamen berria egin dute:

Astelehenetan: 0-2 urte arteko haurrak egongo dira gurasoekin. Martxa hartzen duen heinean beharrak aztertu eta ekimen bereziak (solasaldi, tailer...) egitea da asmoa. Hezitzaile bat egongo da.

Astearte+asteazkenetan: 3-8 urte arteko haurrak egongo dira eta orain arteko Ludotekoa bezala funtzionatuko du. Hezitzaileekin egongo dira haurrak.

Ostegunetan: 8-12 urte arteko haurrei zuzendutako jarduerak burutuko dira hezitzaileekin.

Hilean behin ostiral/larunbat edo igandean: 12-16 urteko haurrekin bildu eta ekintza bereziak egiten ahaleginduko da hezitzailea.

- HAURREN ASANBLADA: Haurrekin asanbladak egin dira ikasturtean zehar. Hasieran herrian, baina haur guztiak biltzeko eskola guneko egokiena dela eta, azkena eskolan egin zen, horrela jarraitzeko asmoarekin. Eurek identifikatutako beharrak eta bideragarritasuna aztertuta ondorengo proiektu garatu da.

- o JOLAS PARKE BERRIA: Haurrek tirolina eta area, ura eta egurra dauden jolas gunea nahi dutela hautatu eta bakoitza zein lekutan egotean nahi duten adostu dute. Tirolina Mainondoko txintxaunetan eta elementu naturalak Bolatoki aurreko belardian jartzea adostu

da. Momentu honetan aurrekontuak bildu eta hauek gauzatzeko pausuak ematen ari gara.

- **NERABEEN ASANBLADA:** Saiakera ezberdinak egin arren, ez zen nerabe askorekin biltzeko aukera egon. Ez zuen jarraipenik izan. Aurten Txatxilipurdiko hezitzaileak hilean behin gazte hauekin bildu eta asanbladak bideratzeko ahalegina egingo du.
- **FRONTOI AURREKO EREMUAREN BERRANTOLAKETA:** Eskolako zein Haurreskolako eragile ezberdinak eta nerabeak bildu eta eremu prozesu parte hartzaile bat aurrera eramanda, eremu hori kotxeei ixtea erabaki da. Udala espazio berriaren diseinua zehaztu eta lanak egitea falta da.
Eskolako bidearen egoera eskasa ere azpimarratu zen eta horri irtenbidea emateko eskaera egin zaio udalari; horrela, lan hauetara bideratutako aurrekontua udalak bidea egokitzen gastatzea ere adostu da.
- **OINEZ ESKOLARA PROIEKTUA:** Egunerokotasunean praktikara eramatea konplikatu dela aztertu da; horrela, hilean behin egitea eta ekimena jai batekin habiatzea proposatzen da. Frontoi aurreko eremua ixten den eguna hasiera emateko egun aproposa izan daiteke baina aztertu beharra dago. Hasierako aurrekontuetan honetara dirurik bideratu ez bazen ere, apur bat beharko dela ikusita, kopuru bat ahalbidetuko da.

IKASTURTE HONETARAKO ERRONKAK:

1. HASITAKOAK BUKATU

- **JOLAS PARKEA:** Tirolina zein elementu naturalez osatutako jolas parkeko elementuen aurrekontuak eskatzen ari gara. Erabiliko den materiala erabaki eta lanak gauzatu dira.
- **FRONTOI AURREKO EREMUAREN BERRANTOLAKETA:** Proiektua zehaztu eta lanak egitea falta da. Hurrengo hileetan gauzatu da. Eskolako bidearen egokitzapena nola egin Udalaren esku dago; lehenbailehen egitea espero da.
- **OINEZ ESKOLARA:** laz esku artean izandako diru laguntza atera da baina eskatzea oso konplikatu dela baloratu da. Orain arte landutako garatzen jarraituko da. Bestalde, eskolak gaia landu eta elkarlanerako prestutasuna erakutsi du
- **HAURREN ASANBLADA:** Jolas parkeak egiten direnean berrartzea proposatu da.

2. PROIEKTU BERRIAK ABIATU (aurrekoak amaitzen goazen heinean)

- **ESKOLA AURREKO EREMUARI FORMA EMAN:** Eskolak ikusitako beharrezanetik sortzen da
- **GERRA ZIBILAREN GAIA HAURREKIN LANTZEKO PROIEKTUA GARATU:** Udalak iazko ikasturtean gaiaren inguruan egindako lana haurrekin borobiltzeko beharretik abiatzen da. Momentuz esperientzia interesgarriak ezagutzea adostu da.

HURRENGO BILERA: Gabonak inguruan proiektu batzuk bukatzea espero denez, orduan bildu, emaitzak aztertu eta erronka berriak hautatzeko lan-ildoak hautatuko dira.